



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## AMOREBIETA-ETXANOKO EGUNEKO ZENTROAN BURUTUTAKO ZERBITZU EMATE ETA JARDUERENGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

**I Eranskina: Minusbaliatu psikiko eta fisikoentzako eguneko zentroa**  
**II. Eranskina: Adinekoentzako eguneko zentroa**

2008

### I. KONTZEPTUA

#### 1. Artikulua

Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, Udal honek Amorebieta-Etxanoko Eguneko Zentroan zerbitzuak emateagatik prezio publikoak ezartzen ditu ordenantzak ezarritakoari jarraiki, aipatutako Foru Arauko 44tik 50era bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat eta azaroaren 13ko 167/201 zk.dun Foru Dekretuak eraldatutako abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuan xedatutakoari egokitzea helburu duena. Aipatu Foru Dekretu horretan Bizkaiko Foru Aldundiko titulartasunaren menpe dauden pertsona nagusientzako eguneko zentroetara sartzeko sistema arautzen da; Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatu eta beste titulartasun baten menpe dauden pertsona nagusientzako eguneko zentroetan hitzartu edo adostutako plazak, baita abenduaren 26ko 203/2001 Foru Dekretuan xedatutakoari ere. Honen bidez Minusbaliotasuna duten Pertsonetaz arduratzen diren Zentroetako prezio publikoak aplikazearabaki eta arauketa garatzen da, beraienak izan, itundutakoak, erabakitakoak eta kontratatutakoak.

#### 2. artikulua

Ordenantza honek ukitzen duen prezio publikoa Amorebieta-Etxanoko Eguneko Zentroan banan-banako arreta eskaintzeagatik eskatuko da, eta baita minusbaliatuak udalerriko ikastetxeetara eramateko garraio zerbitzu egokituagatik.

### II. ORDAINTZERA BEHARTUAK

#### 3. Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak ordaintzera behartuta egongo dira Amorebieta-Etxanoko Eguneko Zentroan eman eta burututako zerbitzuak eskatu, erabili edo horiei onura ateratzen dietenak.

### III. ESKURATZE OINARRIAK ETA TARIFAK

#### 4. artikulua

Amorebieta-Etxanoko Eguneko Zentroaren prezio publikoaren oinarri dira zentroaren erabilera edo bertako zerbitzua gauzatzen dituzten ataletako bakoitza.

Prezio publikoa Aldundiak finkatuko du banakako Foru Aginduen bitartez.

Era berean, Aldundiak urtero ezartzen du zerbitzu bakoitzeko plazak edukiko duen kostu-prezioa.

#### 5. artikulua

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik prezio publikoen tarifek I eta II. eranskinetan jasotako irizpideak jarraituko dituzte, interesdunak eskatutako zerbitzuaren arabera.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Amorebieta-Etxanoko Udalak une oro erabiltzaileek beren baliabide ekonomikoen gainean egindako aitortpenak berrikusi eta egiaztatzeko eskubidea izango du, Ordenantza honen aplikazioa kasu bakoitzera egokitu dadin, batik bat erabiltzailea zerbitzuaz gozatzan hasi aurretik.

Minusbaliatuak ikastetxeetara erama-teko garraio zerbitzu egokituaren erabiltzaileek 11,50 €ko tarifa ordainduko dute irakasteguneko.

#### **IV. KUDEAKETA ARAUAK**

##### **6. Artikulua**

5. artikuluan araututako tarifen arabera eska daitezkeen zenbatekoak burututako edo eskatutako zerbitzu edo jarduera bakoitzagatik ordainduko dira, eta adierazitako zenbatekoak ezin izango dira txikitu.

Eguneko zentroaren ordutegia hau da: goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara.

Egun erdiko zerbitzua goizez edo arratsaldez eskaintzen da, jantoki zerbitzua barne.

Kontuan izanik zerbitzua Eguneko Zentroarena dela, gehienez egun erdiko 4 plaza onartuko dira.

Minusbaliatuak ikastetxeetara eramateko garraio zerbitzu egokituaren zenbatekoa urtean behin ordainduko da.

##### **7. Artikulua**

Ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzu emate edo jarduerak burutzeko, aldez aurretik udal administrazioari eskatu beharko zaio horiek eman edo burutzea, dagokion eskaera beteaz, bertan eskatzen diren agiri guztiak erantsiz, egoera sozio-ekonomikoa egiaztatu asmoz. Zerbitzu edo jarduera horiek eman direla ulertuko da, kasu guztietan, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzera baldintzatuak. Prezio publikoa ez ordaintzeak zerbitzua ez ematea edo jarduera ez burutzea ekarriko du automatikoki.

#### **V. KOBRANTZAK**

##### **8. artikulua**

Orokorrean, prezio publikoaren zenbatekoa hilabete natural bakoitzaren lehenengo egunetik eskatuko zaie behartutako pertsoneri, edo zentroan sartzen diren egunetik, egokia denean.

Garraio zerbitzu egokituaren kasuan kobrantza bakar bat ezarriko da urteko, irakastegunen arabera.

##### **9. artikulua**

Eguneko Zentroaren prezio publikoa onuradunari bankuko kontuan zordunduko zaio. Xede horietarako, onuradunak kontuaren zenbakia eman beharko du, eta Amorebieta-Etxanoko Udalari baimena eman beharko dio berariaz Ordenantza honetatik sortutako prezio publikoaren zenbatekoa hileroko kontu horretan zorduntzeko.

Garraio zerbitzuaren prezio publikoa banku transferentziaren bidez ordainduko zaio Udalari, zerbitzu hori eskatu ondoren.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, 2002eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2002eko ekainaren 11an. Ondoren, 2004ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran aldatu zen lehenengoz, bigarrenaz 2004eko urriaren 13ean, hirugarrenaz 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an, eta 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an laugarrenaz.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Aldaketa hau 2007ko urriaren 25ean egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2007ko abenduaren 14an. 2.008eko urtarrilaren 01ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.

## **I ERANSKINA**

### **MINUSBALIATU PSIKIKO ETA FISIKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA**

Urriaren 28ko 204/2003 Foru Dekretuaren bidez ezinduak zaintzeko zentro propioetako, itunpekoetako, hitzarmenpekoetako eta kontratupekoetako prezio publikoak aplikatzea erabaki zen eta haiei buruzko arauak garatu ziren; horrela bada, minusbaliatu psikiko eta fisikoentzako eguneko zentroa erabiltzeko tarifak eta baldintzak 204/2003 Foru Dekretuan ezarri zirenak izango dira.

## **II. ERANSKINA**

### **ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA**

Erabiltzaileek zerbitzu erdiz bakarrik baliatu nahi izanez gero, ezarritako zenbatekoen erdia (%50) ordaindu beharko dute.

Abuztuaren 22ko 145/2001 Foru Dekretuak inoren menpeko adinekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasunpeko eguneko zentroetan sartzeko sistema; inoren menpeko adinekoak eguneko zentroetako plaza itunduetan nahiz hitzartuetan sartzeko sistema; eta inoren menpeko adinekoak eguneko zentroetako plaza ez-itunduetan edo ez-hitzartuetan sartzeko banakako ekonomi laguntzen emakida araupetzen du; horrela bada, adinekoentzako eguneko zentroari aplikatzeko irizpideak eta tarifak 145/2001 Foru Dekretuan ezarri zirenak izango dira.